

B2

2. BATXILERGOA AUKERAGAIK

✓ FRANTSESA 2. ATZERRIKO HIZKUNTZA II.

Frantsesa II atzerriko hizkuntza ikasgaiaren 2. batxilleren lantzen dugu gehien bat komunikazioa. 2. batxillerreko kurtsoa estresante xamar izaten da ikasleendako, horregatik Frantseseko klaseetan saiatzen gara lan praktikoa eta dinamikoak egiten. Eta lan horiek gaurkotatzen lotuta.

Lantzen ditugu egunkarietako erreportaiak, telebistako albisteak, interneteko berriak eta fakeak, ikusten ditugu modan dauden serieak eta kantatzen ditugu beraien gustoko kantak...

Hau da, erabiltzen ditugu gure eskura dauden informazio iturri ezberdinak klaseak ahalik eta komunikatiboan izateko.

Eta, egia esateko, emaitzak oso onak izaten dira. Ikasleek oso maila polita lortzen dute.

SELECTIBITATEKO PROBA (BEUS)

Azken urteotan hainbat Unibertsitateek (UPNA tartean) eman diote frantses aukeragaiari pisu bat BEUS probatan.

Orain dela gutxi arte ikasleak bazuen aukeratzea "atzerriko hizkuntza" atalean berak nahi zuen hizkuntza, hau da, nahiz eta ingelesa lehenengo atzerriko hizkuntza izan, ikasleak nahi bazuen, bazuen egitea frantsesa ingelesaren orde. Orain karrera jakin batzuetan frantsesa aukeragaiak ponderatzen du eta honek ematen die ikasleei nota hobetzeko beste aukera bat. Hau da, orain ikasleak badu egitea "atzerriko hizkuntza" atalean ingelesa eta ponderatzen duten ikasgaiaren artean, frantsesa. Hau lorpen handia izan da eta abantaila handia frantses egiten duten ikasleentzat

✓ INFORMAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK (IKT II).

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak Gaur egun erraz antzeman daiteke etengabeko iraultza batean bizi garela, eta orain dela urte gutxi imajina ezin genituen gailu teknologikoak eta informazioa erabiltzen ditugu. Bizitzeko eta lan egiteko era errotik aldatu da, eta heldutasunean garatu eta integratzeko behar diren gaitasun eta trebetasun berriak agertu dira oso konektatuta dagoen eta beti aldatzen ari den gizartean. Ikasleek prest egon behar dute aldatzen ari den gizartera egokitzeko.

IKT irakasgaiari esker, ikasleak prest egonen dira egokitzea eskatzen duen esparruan aritzeko; epe laburrean zahartzen diren tresnen erabileran oinarritutako alfabetizazio digitalaren orde, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskaini behar dira bizitza osoan zehar etengabeko ikaskuntza errazteko, modu horretan informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan sortzen diren eskaerak erraz egokitu daitezten.

Garatuko diren edukiak ondorengoak dira: **Ordenagailu sareak eta arkitektura, AutoCad 2020, Programazio lengoia, (Scratch, Pascal, Arduino), Segurtasun interneten, Sare sozialak, google plataforma SketchUP, Google Sites, Movie Maker, mBlock errobotikaren sarrera.**

✓ OSASUNERAKO JARDUERA FISIKOAK

Ikasgai honen bidez ikasleak, ariketa fisikoaren bidez, bere osasuna landu eta hobetuko du.

Ariketa fisikoa eta kirola osasungarriak izan daitezzen, ez du balio edozer moduz aritzea. Gorputzaren funtzionamendua eta kirol entrenamenduaren oinarriak ezagutu behar dira. Ikasgai honek bi zati ditu:

Lehenik, ikasleak modu egokian nola prestatu ikasiko du. Horretarako, eduki hauek landuko ditu, bai praktikoki nola teoria landuz:

- Oinarrizko gaitasun fisikoak: Indarra, erresistentzia, malgutasuna eta abiadura. Hau, kirol zikliko eta aurkari zuzenekoetan landuko da.
- Lesio prebentzioa: Horkatila, belauna, gerri-core eta sorbaldetako lesioak. Lesio orokorrak eta kirol espezifikokoak.
- Elikadura eta hidratazioa. Jarraibide orokorrak eta ariketa fisikora aplikatua.
- Bere entrenamenduaren kontrolerako eskuragarri daukan oinarrizko teknologia.

Ikasgaiaren bigarren zatian, ikasle bakoitzak aukeratuko du klasean praktikatu nahi duen kirol edo ariketa fisiko bat eta praktika hori modu egokian egiteko, programazio bat prestatuko du, non ikasitako guztia aplikatu beharko duen.

✓ PSIKOLOGIA

Psikologia ikasgaia, heziketa pertsonal eta sozial on bat lortzeko beharrezkoak eta erabilgarriak diren ezagutza eta trebetasun multzoa da.

Norberaren buruaren ezagutzarako zein beste pertsonenerako lagungarria da oso.

Horretaz aparte, etorkizunean Unibertsitatean (magisteritza, psikologia, gizarte hezkuntza, erizaintza, publizitatea eta harreman publikoak, marketing-a, eta abar.) edota Goi Mailako Heziketa Ziklo anitzetan burutuko diren ikasketetarako sarrera ezin hobea izateaz gain, orientazio balio handia duen jakintzagaia da.

Helburuak:

- Ikasleek jakintzagai honen inguruko kontzeptu eta ideia nagusiak ezagutu eta ulertzea.
- Gogamenak nola lan egiten duen ulertzea: nola ikasten dugun; nola jokaten dugun eta zergatik; oroimenaren funtzionamendua, giza pertzepzioarena; nortasunaren eraketa; motibazioa, ...
- Jokabide desorekatu, mingarri edo kaltegarriak (psikosiak, histeriak, neurosiak, ...) aztertu, ulertu eta molda daitezkeen edo ez ikustea (terapiak, ...).
- Portaeraren ondorioz sortu daitezkeen gizarte arazoaren aurrean har daitezkeen jarrera ezberdinak aztertu eta alderatzea, etabar.

Metodología:

Metodologia aktiboa eta parte hartzailea izango da (talde lanetan arituko gara batez ere). Izan ere, eduki teorikoak eta ikasleen aurre-egagutzetatik abiatuta, jarduera parte hartzaileak proposatu eta aplikazio tekniko-praktikoak erabiliko dira (film edo testuen bitartez, benetako kasuak aztertuz, test-ak eginez, komunikabideek eta iragarkiek erabiltzen dituzten teknikak ikertuz, adituen lana hurbiletik ikusteko aukera, etabar).

Baliabidei dagokionez, ikusentzunezkoen erabileraz gain baliabide informatiko edo digitalak izango dira eguneroko lanaren ardatza (informazioa bilatzeko, lanak egiteko, aurkezpena egiteko, ...)

✓ ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAREN OINARRIAK

Enpresa txiki bat sortzea eta kudeatzea. Ikasleek taldeka lana eginez eta enpresa txiki baten simulazio-proiektua osatzen honakoak lantzea helburu:

0. **Lan mundura eta enpresen errealitatera hurbiltzea:** lan kontratuak eta nominak, langile autonomoak, fakturak, txekak, ordaindukoak, maileguak, publizitatea, kontabilitatea ...
1. **Negoio-idea:** enpresa-jarduera, kokapena, AMIA azterketa, izena, logotipoa ...
2. **Enpresaren forma juridikoa:** autonomia, SL, SA ...
3. **Enpresa sortzeko eta abian jartzeko tramiteak:** Hazienda, Gizarte Segurantzza, Enplegu-zerbitzua, Udaletxea,
4. **Hornikuntza, erosketa-prozesua:** albaranak, fakturak, ordaintzeko moduak (banku-transferentziak, plastikozko dirua, txekak, ordaindukoak ...).
5. **Merkaturatzea, salmentak eta Marketin:** publizitate-euskarriak, kobratzeko moduak.
6. **Finantzazio-iturriak:** banku-maileguak eta kredituak, altxortegi-plana.
7. **Langileria:** Curriculum Vitae, hitzarmen kolektiboak, lan-kontratuak, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak, LABE.
8. **Kontabilitatea:** ondarea, Balantzeak, Galdu-Irabazien kontua.